



**Gazte aukera atariak eta Basque Team-ek 2016ko Rioko Olinpiar eta Paralinpiar Jokoetara joateko aukera emango diete 8 gazte *blogariri***

- ***Gazte Olympic Team*** lehiaketak zortzi blogari aurkitu nahi ditu 2016ko udan Rion jokatu diren kirol jardueren testigantza eman dezaten.
- Irabazleek olinpiar jokoetako jarduera ugaritara joan eta ***Basque Team***-eko euskal kirolariek harremanetan egoteko aukera izango dute.
- Lehiaketan parte hartzeko, "Euskal Selekzioak 10 domina eskuratu ditu Olinpiar Jokoetan" delako gaiari buruzko idazlana edo bideoa bidali behar da Gazte aukera webgunearen bidez. Lanak aurkezteko epea: 2015eko urriaren 15etik abenduaren 15era.
- Sariak Riorako hegaldiak, ostaturak, kirol jardueretarako sarrerak, bidaiako gastuak eta aseguruak biltzen ditu.
- Ekimen honen bidez euskal gazteei hurbildu nahi zaie kirol jarduera garrantzitsu hau, munduan antolatzen den handiena, baina gazteen ikuspuntutik egin nahi izan da, gazteriak gehien erabiltzen dituen tresnen bitartez, hala nola blogak, sare sozialak eta bestelako IKT-ak.



Eliteko kirola bultzatzea xede duen *Basque Team* euskal Fundazioak eta Gazteukera gazteriaren atariak **Gazte Olympic Team** lehiaketa abiarazi dute, Rion 2016ko esperientzia olinpikoa informazio-teknologia berrien bitartez ezagutarazteko asmoz. Zortzi blogari gaztek Olinpiar Jokoein zerikusia duten jarduera asko zuzen-zuzenean bizi, lehian diharduten euskal kirolariek harremanetan egon eta han-hemenka bildutako esperientziak Gazteukera blegean islatzeko aukera izango dute.

*Gazte Olympic Team* lehiaketak aukera paregabea eskaintzen die Euskadiko gazteei Rion bederatzi eguneko egonaldia irabazteko, lau lagun Olinpiar Jokotara gonbidatuz eta beste lau Paralinpikoetara. Sariak hegaldiak, ostatua, kirol jardueretarako sarrerak, bidaiak-gastuak eta aseguruak biltzen ditu.

Lehiaketa 18 urtetik 30 urte bitarteko Euskadiko gazteentzat irekita dago, eta bertan parte hartzeko, idazlan bat edo bideo bat bidali behar dira Gazteukera webgunearen bitartez, gaitzat honako hau hartuta: **“Euskal Selektzioak 10 domina eskuratu ditu Olinpiar Jokotan”**. Lanak bidaltzeko azken eguna 2015eko abenduaren 15a da, eta 2016ko urtarrilaren amaieran, saritutako pertsonen izenak argitaratuko dira Gazteukera atarian eta *Basque Team-en* zein Gazteukeraren sare sozialetan (Facebook eta Twitter).

Aurkeztuko diren lanetan, komunikatzeko gaitasuna, originaltasuna eta kalitatea kontutan hartuko dute epaimahaikideek. Epaimahaiak zortzi lan aukeratuko ditu, eta zozketa bidez, launa pertsonako bi talde antolatuko dira, Olinpiar Jokotara joateko bata, eta Joko Paralinpikoetara joateko bestea.

Talde hauen esperientziak (postak, argazkiak eta bideoak) Gazteukerako blegean azalduko dira, bai eta sare sozialetan ere. Aukeratutako blogariek *Basque Team-ek* babestutako euskal kirolari olinpiko nahiz paralinpiko batzuekin zuzenean harremanetan egoteko aukera izango dute.

### **Gazteukera**

Gazteukera Euskadiko Gazteriaren ataria da. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak gai desberdinei buruzko informazio eskaintzen du atari honen bidez, kultura eta aisia, euskara, Internet, lankidetzak, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, osasuna eta ekologia tarteko direla. Gazte Informazio Guneetako zerbitzuak eta Gazteriaren Euskal Behatokia ere atarian ageri dira. Urterik urte, Zuzendaritzak era askotako programak garatzen ditu, hala nola, Gaztebizitza orientazio eta aholkularitza zerbitzua, Auzolandegiak, Euskadiko Gazteak Lankidetzan, Gazte-txartela edo programa europarrak.

### **Basque Team**

Goi-mailako euskal kirolaren garapena bultzatzea da *Basque Team-en* xedea, Euskadiko kirolariek ordezkariak zabala izan dezaten goi-mailako kirol lehiaketetan. Ekimena Eusko Jaurlaritzak —Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta



Kultura Sailaren bitartez— eta Euskal Irrati-Telebistak bultzatu dute.

**Informazio gehiago, gazteukera atarian:**

[http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-gbh001/eu/contenidos/noticia/gaztebizhitza\\_lehiaketa\\_rio/eu\\_def/index.shtml](http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-gbh001/eu/contenidos/noticia/gaztebizhitza_lehiaketa_rio/eu_def/index.shtml)

**Harremanetarako:** [gazteukera@gmail.com](mailto:gazteukera@gmail.com)

Gasteizen, 2015ko urriaren 14an